# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-434

AGINDUA, 2000ko azaroaren 21ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Administrazioko Parke Higikorraren Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duena.

Administrazioko Parke Higikorra arautzen duen uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuaren 21. artikuluak Parke Higikorraren Erregistroa sortzeko manua ematen du, eta horri buruzko araudia garapen-agindu baten bidez egingo dela esaten du.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Hauxe da agindu honen helburua: Administrazioko Parke Higikorraren Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

*2. artikulua.–* Organo eskuduna.

Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritza arduratuko da Administrazioko Parke Higikorraren Erregistroa kudeatzeaz.

*3. artikulua.–* Erregistroaren euskarria eta ustiaketa.

Erregistroa euskarri informatikoan egingo da eta beti eguneratuta edukiko da teknologiaren aldetik. Gainera, aplikazioa edo bertsioa aldatuz gero, gordetako informazioa ez dela galduko eta eskuragarri egongo dela bermatuko da. Erregistroaren euskarri den aplikazio informatikoak, gordetako informazioaren ustiaketa zabala ahalbidetuko du.

*4. artikulua.–* Erregistroko informazioa.

Erregistroan, agindu honetan zehazten den informazioa sartuko da, hau da, Administrazioko Parke Higikorra arautzen duen uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren ibilgailuei buruzkoa.

*5. artikulua.–* Erregistroaren izaera.

Administrazioko Parke Higikorraren Erregistroa ez da publikoa izango eta bertako informazioa erakunde hauek baino ez dute erabiliko: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomiadunek eta horien fiskalizazio eta kontro-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-434

ORDEN de 21 de noviembre de 2000, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la organización y funcionamiento del Registro del Parque Móvil de la Administración.

El artículo 21 del Decreto 300/1999, de 27 de julio, por el que se regula el Parque Móvil de la Administración, dispone la creación del Registro del Parque Móvil y remite su regulación a una posterior Orden de desarrollo.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación de la organización y funcionamiento del Registro del Parque Móvil de la Administración.

*Artículo 2.–* Organo competente.

La gestión del Registro del Parque Móvil de la Administración corresponderá a la Dirección de Recursos Generales del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 3.–* Soporte y explotación del Registro.

El Registro se llevará en soporte informático, que se mantendrá tecnológicamente actualizado, garantizándose el mantenimiento y la disponibilidad de la información almacenada en caso de cambios de versión o de aplicación. La aplicación informática soporte del Registro permitirá una amplia explotación de la información registrada.

*Artículo 4.–* Información registrada.

Al Registro accederá la información que se determina en la presente Orden, relativa a los vehículos a que se refiere el artículo 2 del Decreto 300/1999, de 27 de julio por el que se regula el Parque Móvil de la Administración.

*Artículo 5.–* Carácter del Registro.

El Registro del Parque Móvil de la Administración no tendrá carácter público y la información en él contenida estará disponible en el ámbito interno de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, así como de los

la legearen arabera egiteko eskumena duten erakunde eta instituzioek.

*6. artikulua.–* Erregistroaren arduraduna.

Administrazioko Parke Higikorreko Zerbitzuaz arduratzen den funtzionario berbera arduratuko da erregistroaz ere. Berari dagozkio, beraz, zeregin hauek: erregistroko idazpenak sartzea, kentzea edo aldatzea; zuzenak direla egiaztatzea eta horiei buruzko egiaztagiriak egitea.

*7. artikulua.–* Erregistroan sartzea.

Ibilgailua erosten edo errentan hartzen den unean egiten den hartze edo emate akta sinatu ondoren, ibilgailuari alta emango zaio erregistroan.

Idazpenean datu hauek jasoko dira gutxienez: ibilgailua erosi edo errentan hartu den eguna (hartze aktaren data), kontratazio-espedientea, ibilgailuaren marka eta modeloa, xasis-zenbakia, matrikula, matrikulazio-eguna eta zein errejimenetan hartu den (jabetza, errentamendua...).

*8. artikulua.–* Informazioa mantentzea.

Erregistroko informazioa eguneratuta egongo da beti. Beraz, ibilgailuen errejimenean egiten diren aldaketa guztiak jasoko dira, bereziki, sailkapenari buruzkoak (uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuaren 2. artikuluaren arabera) eta ibilgailua eman zaion pertsonari buruzkoak (Dekretu horretako 6. artikuluaren eta hurrengoen arabera).

*9. artikulua.–* Erregistrotik kentzea.

Administrazioko Parke Higikorreko ibilgailu bat, dena delakoagatik, uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuko 2. artikuluko eremutik kanpo geratzen bada, kendu egingo da erregistrotik, dagokion idazpena eginda.

Erregistrotik ateratzeko idazpenak datu hauek izango ditu gutxienez: baja-eguna, erregistrotik kentzeko arrazoia eta ibilgailuarekin zer egingo den.

*10. artikulua.–* Fitxategiak mantentzea.

Erregistrotik kentzeko idazpena egin ondoren, ibilgailu horri lotutako artxibategi informatikoak erabilgarri egongo dira sei urtez gutxienez.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erregistroa abiaraztea.

Agindu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, Administrazioko Parke Higikorrean gaur egun dauden ibilgailuak erregistroan sartuko dira, 7. artikuluan aipatzen diren datuekin eta informazio eguneratuarekin batera. Salbuespen gisa, kontratazio-espedienteari buruzko datuak ezagunak direnean baino ez dira sartuko.

Organismos o Instituciones con facultades de control o fiscalización de ésta en los términos legalmente establecidos.

*Artículo 6.–* Encargado del Registro.

Actuará como encargado del Registro el funcionario responsable del Servicio de Parque Móvil de la Administración, a quien corresponderá acordar las altas, bajas y modificaciones de los asientos registrales, así como velar por la corrección de los mismos y certificar sobre sus contenidos.

*Artículo 7.–* Altas.

Los vehículos se darán de alta una vez suscrita el acta de recepción o entrega que se cumplimente en el momento de la adquisición o arrendamiento.

El asiento de alta contendrá, como mínimo, la siguiente información: fecha de adquisición o arrendamiento (la del acta de recepción), expediente de contratación, marca y modelo del vehículo, número de bastidor, matrícula, fecha de matriculación y régimen de adquisición (propiedad, arrendamiento...).

*Artículo 8.–* Mantenimiento de la información.

La información contenida en el Registro habrá de mantenerse permanentemente actualizada, incorporando cuantas modificaciones se produzcan en el régimen de los vehículos, especialmente las relativas a la clasificación de los mismos, según el artículo 4 del Decreto 300/1999, de 27 de julio y a su asignación, según los artículos 6 y siguientes del citado Decreto.

*Artículo 9.–* Bajas.

Cuando un vehículo del Parque Móvil de la Administración quede, por cualquier causa, fuera del ámbito establecido en el artículo 2 del Decreto 300/1999, de 27 de julio, causará baja en el Registro anotándose el asiento correspondiente.

El asiento de baja contendrá, como mínimo, la siguiente información: fecha de baja, motivo de la baja y destino del vehículo.

*Artículo 10.–* Mantenimiento de los ficheros.

Una vez cumplimentado el asiento de baja de un vehículo, los ficheros informáticos asociados al mismo habrán de mantenerse operativos durante un mínimo de seis años.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Puesta en marcha del Registro.

En el plazo de un mes, a contar desde la fecha de entrada en vigor de la presente Orden, se darán de alta en el Registro los vehículos actualmente integrados en el Parque Móvil de la Administración, incorporando los datos relacionados en el artículo 7, excepción hecha de la referencia al expediente de contratación, dato éste que accederá únicamente cuando resulte conocido, así como la demás información actualizada a la fecha.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 21a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 2000.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDIOA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA IKERKETA SAILA

### Zk-435

9/2001 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpekoetan ikasleen onarpena arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

Otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuak, urtarrilaren 27ko 8/1998 Dekretuaren bidez aldatua izan zenak, unibertsitatekoez besteko herri eta itunpeko ikastetxeetan ikasleen onarpena arautzen du.

Dekretu horren eranskinean eskatzaileen kopurua ikaspostuen kopurua baino handiagoa denean aplikatu behar den baremoa ezartzen da.

Baremo honetan, bigarren irizpidetzat, famili unitatearen urteko errenta aipatzen da, errenta kopuruaren araberako puntuazio eskala bat ezarriaz.

1999 urteko zerga-arautegiaren arabera, zenbait baldintza betetzen direnean, 5 milioitik beherako errenta dutenek ez dute errenta-aitorpenik egin beharrik; beraz, 14/1997 eta 8/1998 Dekretuek ezartzen dituzten errenta tramoak aldatu behar dira.

Halaber, eskatzaileak ikastetxean dituen anai-arreben atalari ematen zaion puntuazioa aldatu eta gehitu egiten da.

Egiten den aldaketa baremoari egiten zaion bigarren aldaketa denez gero, errezago uler dadin, baremoaren osotasuna argitaratzen da dekretu honetan, aipatutako atalei dagozkien aldaketak kontuan harturik.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren bere adostasuna eman-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-435

DECRETO 9/2001 de 23 de enero, de segunda modificación del Decreto por el que se regula la admisión de alumnos(as) en los Centros públicos y privados concertados de Educación Infantil, de Educación Primaria y de Educación Secundaria, de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 14/1997, de 4 de febrero, modificado por el Decreto 8/1998, de 27 de enero, regula la admisión de alumnos en centros no universitarios sostenidos con fondos públicos de la CAPV.

En el anexo del citado Decreto se establece el baremo de aplicación en los casos en que el número de plazas sea inferior al número de solicitudes.

En el citado baremo se incluye, como segundo criterio, la renta anual de la unidad familiar, a la que se otorga diferente puntuación en virtud de los tramos de renta que se establecen.

Como la normativa fiscal para el año 1999, prevé la no obligatoriedad de realizar declaración hasta rentas superiores a 5 millones en determinados supuestos, se hace necesario modificar los tramos de baremación de este apartado, establecidos en los Decretos 14/1997 y 8/1998.

Asimismo, se modifica otro apartado del baremo, como es «la existencia de hermanos en el centro», al que se concede una mayor puntuación que en el baremo anterior.

Por tratarse de una segunda modificación del baremo, con objeto de una mejor comprensión, se publica en este Decreto la totalidad del baremo incluyendo las modificaciones correspondientes a los citados apartados.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, oído el Consejo Escolar de Euskadi y oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación